

Armak

50.1.- Aukeratu erantzun egokia:

Tasio eta Kevin ez datoz bat armak izateko premiaz. Kevinen ustez...

- a) Armak beharrezkoak dira hartzak eta otsoak akabatzeko.
- b) Miamin beharrezkoak dira armak. Euskal Herrian ez.
- c) Armak beharrezkoak dira, inoiz ez da jakiten zer gertatuko den.

Kevinek dioenez, ...

- a) Bortxakeriaren monopolioa ezin da gobernuaren esku soilik utzi; horregatik behar dira armak.
- b) Miamiko poliziarri aurre egiteko Charlton Heston bezalakoa izan behar da.
- c) Armek isiltzen dituzte Miamiko beltzak.

Tasiok dio ...

- a) 2056. urtean beltzek eramaten dituztela armak, ez zuriek.
- b) Miamiko egoera eta Euskal Herrikoa oso diferenteak direla.
- c) Kevin bezalako beltzek eramaten dituztela armak 2056an.

50.2.- Tasiok wallapop aipatzen du: bigarren eskuko produktuak saltzeko eta erosteko aplikazioa. Saldu izan duzu inoiz horrelako aplikazio bat erabiliz? Saldu behean dituzun produktu hauek, bakoitzarentzat iragarki labur bat eginez. Hemen duzu adibide bat:



Errobot honekin denbora asko irabaziko duzu. 12 tresna batean biltzen ditu, eta funtzio hauek egiten ditu besteak beste: berotu, egosi, txikitu, xehatu, pisatu, nahastu. Folio baten tamaina dauka. 50 €.



A



B



C



D

A:

B:

C:

D:



Transkripzioa (02:41)

- K- Tasio, seme-alabak izanda, zuk, etxean non gordetzen dituzu armak?
T- Armak?
K- Bai. Batzuetan iruditzen zait gor samarra zaudela, e?
T- E? Gorra?
T- Ez al duk inoiz pentsatu akaso hire galderak hain direla sinesgaitzak bada ez bada ere berriro entzun behar izaten dizkiadala, e?
K- Ez.
T- Ez zer? Ikusten? Ez duk sekula normal galdetzen edo erantzuten.
K- Ez dudala inoiz halakorik pentsatu.
T- Ja. Nola esan behar diat guk etxean ez daukagula armarik, e?
K- Ez dut sinisten. Han, mendi-puntan dagoen neobaserri batean bizi eta armarik ez?
T- Aber, eta zertarako behar dizkiagu armak? Aspaldi desagertu ziren hartz eta otsoak akabatzeko?
K- Jendea...
T- Jendea? Jendea akabatzeko?
K- Bai!
T- Hi erotu egin haiz.
K- Ni Miamiakoa naiz, eta han norbait zure permisurik gabe zure etxean sartzen denean, hura akabatzeko eskubidea daukazu.
T- Ja, ja, baina hau Euskal Herria duk, ez Miami.
K- Berdin dio. Ni armak izatearen aldekoa naiz.
T- Bada, harritu egiten nauk hiri horrelakoak entzunda, e?
K- Zer ba?
T- Zera, hire jaioterri hartan gauzak nola dauden ikusita eta hi haizen modukoa izanda...
K- Ni, ni, ni...zer?
T- Bada, hi... hi haizena jakinda...
K- Zer naiz?
T- ...armen alde egotea ez duk oso logikoa...
K- Zer naiz bada, ni?
T- Hik beti esaten duk beltza haizela, ezta?
K- Hain zuzen horregatik. Bortxakerien monopolioa ezin da gobernuen eskuan utzi. Isilik egon daitezten, armek armak behar dituzte parean.
T- Hara!... polita geratu zaik, e? Gerrillari burgesaren eskuorritik atera al duk, e? Charlton Heston?
K- Nahi duzuna esan, baina Miamiako polizia baten aurrean banago, nik nahiago eskuan arma bat izatea, azenario bat baino.
T- Ez hago Miamin ordea, e? Euskal Herriko errepublikan hago.
K- Ja, eta jakina, hemen ez du inork armarik erabiltzen.
T- Hemen garai batean berdeek, e? Baina gaur egun, 2056. urtean, "beltzek" ... ez hire moduko beltzek, ez, besteek... uniformatuek soilik eramaten dizkitek armak.
K- Ez da guztiz egia...
T- A, ez?
K- Nik dakidala ETAk oraindik ez ditu armak entregatu.
T- Entregatu ez, baina...
K- Baina zer?
T- Wallapop-en saldu zizkiatela entzun nian nik aspaldi.

Erantzunak

50.1.- c); a); b)

